

4. FINAL-LAURDENA. UZTARITZE

Aurkezlea: Joana Itzaina

8KO NAGUSIA

Arkaitz Estiballes eta Beñat Gaztelumendi

Egunkariko bi langile ohi zarete. Gaur goizean, bertsolari andana egon da zuekin pankartaren atzean.

Erika Lagoma eta Aitor Sarriegi

Gaua da, eta supermerkatuko atarian egin duzue topo zabor-kontainerretik janaria ateratzen.

Xabi Paya eta Unai Muñoa

Anai-arrebak/anaiak zarete. Zuen gurasoek ez zizueten euskaraz irakatsi. Aita zahartu eta burua galtzen hasi denean, euskaraz hasi zaizue.

8KO TXIKIA

Beñat Gaztelumendi eta Erika Lagoma

Erika Lagoma ama eta Beñat Gaztelumendi semea zarete. Play station-a oparitu diote Beñat semeari, eta zuk Erika ordubete daramazu kableak aurrera eta atzera martxan jarri ezinik. Beñat urduri sumatzen duzu alboan.

Unai Muñoa eta Arkaitz Estiballes

Zu Unai autobus gidaria zara. Lehendabiziko geltokian igo da Arkaitz autobusera; azken geltokira iritsi zarete jada, eta Arkaitz ez da oraindik jaitsi autobusetik.

Aitor Sarriegi eta Xabi Paya

Arropa eroatera joan zarete, eta, beti bezala, desesperatuta itzuli zarete biok etxera. Zuk Aitor dena handi daukazu, eta zuk Xabi, berriz, dena txiki.

PUNTUARI ERANTZUNAK

Arkaitz Estiballes

Bidasoa erreka / askorentzat muga
Mugarik gabekoa / omen da Europa
Poliziak dabilta / hara eta hona

Beñat Gaztelumendi

Euskaltzaindia ere / adinean gora
Kostatzen ari zaigu / euskara indartzen
Bihar Nafarroan da / ikastolen besta

Erika Lagoma

Lehengo asteburuan / Xalbador Eguna
Xalbadorren txistuak / zuretzat balira
Entzulea ote da / epaile zorrotza

Aitor Sarriegi

Bake Nobel saria / Ameriketara
Zer egin du Obamak / bakearen alde?
Guantanamo oraindik / irekita dago

Xabi Paya

Baionako oihua / AHTrik ez
Uztaritzen nahi dute / geltokia jarri
Eurodisneyra denok / azkar iritsi nahi

Unai Muñoa

Carla Brunik ohore / handia lortu du
Sarkozy txikia da / Carlaren ondoan
Botere-gosea da / munduan nagusi

10EKO TXIKIA

Beñat Gaztelumendi eta Xabi Paya

Bidaia bat hartu zenuten bere garaian. Azken asteotan hango berri txar ugari agertu dira komunikabideetan. Xabik bertan behera utzi nahi du bidaia.

Arkaitz Estiballes eta Aitor Sarriegi

Psikologoa zara, Arkaitz. Aitor zure kontsultara joaten da astero, jendearekin erlazionatzeko arazoak dituela eta. Gaur bestan edo parrandan topatu zarete, eta Aitor bakarrik dago taberna bazterrean.

Erika Lagoma eta Unai Muñoa

Bikotea zarete eta ume bat izan duzue oraintxe. 3 Erika, haren zaintzeko, lana utz dezazun proposatu dizu Unai.

KARTZELA

Sarraila aldatzera etorri dira; oraintxe eman dizute giltza berria.

Hiru bertso nahi duzun neurri eta doinuan.